

XX. DONOSTIA ANTZERKI SARIA

2020

7AK BAT ATX TEATROA

Irailak 8, 19:30
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA



30^{DK}
donostia
kultura
1990-2020



2020ko Munduko Antzerki Eguneko Mezua

**Shadid Nadeem, dramaturgo pakistandarra,
Aioka Theatre taldearen sortzaile eta zuzendaria.**

Itzulpena: Iñaki Iñurrieta

Antzerkia, tenplu

Behin, Aioka antzerki-taldeak Bulleh Shah poeta sufiri buruzko antzezlan bat eman ondoren, gizon zahar bat etorri zen sufi handiarena jokatuako aktoreagana, haur bat eskutik zuela, eta esan zion: "Nire biloba ez dago batere ondo, bedeinkatuko al zenuke?". Aktorea harri eta zur geratu zen: "Ni ez naiz Bulleh Shah, haren rola jokatu duen aktore bat naiz". Zaharrak erantzun zion: "Seme, zu ez zara aktorea, zu Bulleh Shah berragiztatua zara, haren Abatarra».

Bat-batean, antzerki-kontzeptu guztiz berri bat agertu zitzaigun, zeinaren arabera aktore bat jokatzeko duen pertsonaiaren berragiztapen bihurtzen baita.

Bulleh Shah-rena bezalako historiak arakatzea, horrelako historiak kultura guztietan baitaude, zubi gisa erabil daiteke gu antzerki-sortzaileon eta ikus-entzule ez aditu baina oso zaleen artean.

Agertokian ari garen bitartean, batzuetan men egiten diogu gure antzerki-filosofiari, gizarte-aldaketaren aitzindari izan nahiari, eta, hala jokatura, bazterrean uzten dugu komunitatearen parte handi bat.

Orainaren desafioekiko konpromisoari eutsi nahian, uko egiten diogu esperientzia espiritual sakon eta hunkigarriak izateko aukerari, eta antzerkia gai da halakorik emateko.

Gaur egungo munduan, non intolerantzia, gorrotoa eta indarkeria gorantz baitoaz, gure planeta gero eta gehiago ari da barrentzen klima-hondamendian, eta beharrezko dugu gure indar espiritualak berritzea.

Beharrezko dugu borrokatzea apatiaren, lozorroaren, ezkortasunaren, diru-gosearen eta bizi garen planeta honekiko mespretxuaren kontra.

Antzerkiak badu bere egitekoa, egiteko noblea; dinamizatu eta aurrera bultzatu behar du gizadia, lagundu egin behar dio jaikitzen, zulo hondargabea amildu baino lehen.

Antzerkiak tenplu bihurtzeko dezake agertokia, zerbait sakratu bihurtzeko dezake jokagunea. Asiaren hegoaldean, artistek begirunez ukitzen dute agertokiko zorua, zapaldu aurretik; antzinako tradizioa da, alderdi espiritualak eta kulturalak bat eginda zeuden garaietakoak. Garaia da artistaren eta ikus-entzuleen arteko harreman sinbiotiko hori berreskuratzeko, iraganaren eta etorkizunaren artekoa. Antzerkigintza ekintza sakratua izan daiteke, eta aktoreak, hain justu, jokatzeko dituzten rolen abatarrak bihurtzeko.

Antzerkiak eszena santutegi bihurtzeko ahal eraldatzailea du, eta santutegi hori jokagune bihurtzeko.

7AK BAT

ATX TEATROA

“Gaiztoetan gaiztoenak”

Nondik dator gizakiaren gaiztakeria?

Berezkoa da?

Ekidinezina da?

Gure kulturako zazpi pekatu kapitalak eta orokorrean pekatuaren ideia hartu eta, Victor Frankensteinek egin eban moduan, gizaki barri bati bizia emongo deusagu, groteskoa, basatia, gupidabakoa....

Komeria, satira eta sarkasmoaren lengoaiagaz, guztiok alfonbra azpian ezkutatu ohi doguna, agerian geratuko da.

Egilea

Atx Teatroa

Zuzendaritza

Atx Teatroa

Musika

Zarzaparrilla

Antzezleak

Mirian K. Martxante

Estibaliz Villa

Aiora Sedano

Argi diseinua

Atx Teatroa

Eszenografia

Atx Teatroa

Teknika

Atx Teatroa

Argazkiak

Ainhoa Resano

www.atxteatroa.eus

atxteatroa@atxteatroa.eus

(+34) 657 712 844 / (+34) 638 324 105